

Euskal armak Asian. Armagintzaren historiaren istorio bat

Igor Goñi Mendizabal
EHUko irakaslea eta UEUko kidea

Gaur egun Txina merkatu-ekonomian sartzeak dakartzan eta ekar ditzakeen ondorioak eguneroko albiste bihurtu dira. Asiar merkatua zabala da benetan eta, eskaintzen dituen aukerak direla eta, ohikoak dira hango herrialdeetan aritzen edo aritzeko asmoak dituzten enpresen inguruko berriak. Txinatar produktuek Mendebaldeko merkatuetan suposatzen duten lehia ere gaur egungo ohiko eztabaidagai suertatu da munduko ekonomiaren egoerari buruz hitz egitean. Bizitzen ari garen globalizazio-prozesu honetan normalizat har dezakegu gugandik milaka kilometrotara dauden herrialdeetan negoziotan aritzea, nahiz eta euskal industriaren ikuspuntutik fenomeno berritatz hartua izan.

Baina, gertakizun hori ez da berria euskal industriarentzat. Aspaldi, orain dela laurogei urte hain zuzen, zenbait euskal enpresa aritu ziren Txinan eta Japonian euren produktuak arrakastaz saltzen. Enpresa horiek hango merkatuetarako bereziki egokitutako produktuak ekoitzi zituzten, bide horretan, berrikuntza teknologikoan ere aurrerapauso garrantzitsuak eman zituztelarik. Artikulu honen helburua da esportazio-istorio horren nondik norakoak aztertzea, atzerriko merkatuetan barnertatzeko erabili ziren estrategiak ardatz harturik. Izenburuak argi adierazten duen bezala esportatu ziren produktuak armak ditugu eta sektorea, gaur egun herri honetan ia desagerturik dagoen, armagintza.

Nowadays, it is usual to hear of the consequences that the inclusion of China in a market economy has caused, or will provoke in the future. Due to the opportunities given by the size of the Asian Market, it is also usual to hear of companies that do or have set up businesses in that Continent. The competition made by Chinese products in Western markets is also one of the main subjects when talking about the situation of the World economy. And in this globalisation process we are now living, doing business in countries which are thousands of kilometres from us is normally accepted, although it is generally considered a new phenomenon in the case of Basque industry.

But, actually, this is not so new. Eighty years ago, some Basque companies successfully sold their products in China and Japan. They manufactured products specially designed to be sold in those markets and, in this way, they even made advances in technological innovation. The aim of this paper is to analyse this story of export, focusing it on the analysis of the strategies followed in order to penetrate foreign markets. As shown by the main title the products exported by these companies were guns and their activity, which today has almost disappeared in this country, gunmaking.

Esto no ha sido obstáculo para que los eibarreses, con sus modestos capitales, hayan creado en su estrecho barranco, uno de los centros de producción de armas mundiales y un núcleo industrial que dentro de su pequeñez, posee unas complicaciones y un carácter cosmopolita, que no lo tiene ninguna gran industria peninsular (...), en la pequeña villa de Eibar se sienten los ecos de los más abigarrados mercados de Europa o de América y se ve al pequeño industrial de ampuloso vientre y blusa larga, hablar de la manera de vencer la resistencia de los aranceles de un país de primera magnitud, o de triunfar de la baratura de las armas de Bélgica y los Estados Unidos. Docenas de eibarreses sin más bagaje que su vascuence y su mal castellano y francés se lanzan o se han lanzado a Rusia, a los Balcanes, a América del Norte, como viajeros, exportando sus armas y lo que es bien triste, haciéndose la competencia entre ellos (Ramón Belausteguigoitia. *Información*, Bizkaiko Merkataritza Ganberaren aldizkaria. 1923ko abuztuaren 14a).

1. Euskal Armagintza XX. mende hasieran

Euskal armagintzan, beste zenbait sektoretan bezala, aldaketa garrantzitsuak izan ziren XIX. mendearen azkeneko laurdenean. Aro modernoan zehar euskal armagintza Estatuak bere armadentzat Soraluzeko Erret Fabrikaren bitartez bideratutako kontratuen menpekoa izan zen. Kontratu horiek arma bat eraikitze beharrezkoak ziren pieza eta ekoizpen-fase bakoitzeko gremioen ordezkariekin negoziatu egiten ziren eta, horiek gero, euren ekoizpena Soraluze inguruko tailerren artean banatu egiten zuten. Armak behin amaiturik, Erret Fabrikara bidali egiten ziren erakunde horrek kontratuetan aurretik ezarritako baldintzak betetzen zirela ziurta zezan (Urdangarin, 2001; Calvo, 1997; Larrañaga, 1981).

XIX. mendean gauzak aldatzen hasi ziren. Konbentzioaren kontrako gerran (1793-94) Soraluzeko lantegiaren kokapenaren arazo estrategikoak agerian geratu ziren. Horren ondorioz, espainiar monarkiak Asturiasen lantegi publiko berri bat sortzea erabaki zuen¹. Hori dela eta, pixkanaka, euskal industriari zuzendutako Estatuaren kontratuak urritzen ziren heinean, armen merkatu pribatura zuzendutako armagintza baten hastapenak lantzen hasi ziren. Erret Fabrikaren gainbehera nabaria zen, eta 1865. urterako itxi egin zuten. Halere Estatuak, oraindik, euskal enpresa pribatuekin kontraturen bat edo beste egin izan zuen. Britainiar kontsulak 1866. urteari dagokion txostenean adierazten digun Soraluzeko Zuazubizcar, Isla y Cía-ren (garai hartan armagintzan lantegi handiena zen *La Euscaldunaren* jabe zena) eta Espainiako gobernuaren arteko kontratua horren adibide garbia izango litzateke.

The manufacture of fire-arms increases every year in activity. In the course of 1862 the establishment of Messrs. Zuarnabeiar, Islay and C^o., turned out 50.000 rifles for the Spanish Army. The contract was obtained in public competition, and was the first one in which the Spanish Government was not obliged to prolong the period for delivery, or make any other concessions, as had frequently been the case on former occasions when dealing with foreign houses. The factory is supplied with a steam engine of 100 horse-power, and 150 machines of various kinds, all of English manufacture. When in full operation the establishment can turn out upwards of 30.000

1. Asturiaseko lantegi berri hura osatzeko Eibar ingurutik ihes egindako armagintza erabili zituzten (Larrañaga eta Gorrotxategi, 1990: 13).

rifles a-year. About 550 workmen are employed and their wage average 2s. 3d. a-day. The firm has lately concluded a contract with the French Government for the supply of 30.000 guns of the Chassepot class. The conversion systems of Snider, Grey, and others, are well understood and carried out; and some excellent specimens of the Peabody, Remington, and Prussian needleguns have been produced (Report by Mr. Consul Young on the Trade and Commerce of the Consular district of Biscay, Guipuzcoa, and Old Castile, for the year 1866. Parliamentary Papers, Commercial Reports, 1867/68, LVIII).

Baina egoera horrek ez zuen luzaroan iraun, Karlistaldian lantegi handi hori karlistek kontrolaturik izan zuten. Gerraren ondorioz sortutako mesfidantzek Euskal Herrian arma militarren industria garatzearen kontrako jarrerak ugaritu zituzten, eta apurka, mota horietako kontratuak desagertzen hasi ziren. Beraz, eskari militarari lotutako euskal armaginek, aktibitate horretan mantentzeko, euren esfortzuak beste merkatu batzuetara zuzendu behar izan zituzten. Aukeretako bat ehizarako armak egitea zen eta batzuk horretan jardun ziren, baina benetan arrakasta izan zuen aukera arma laburrena izan zen, hasieran errebolberrak eginez eta, beranduago, XX. mendean, pistola automatikoak ere bai.


Lehenengo grafikoak erakusten digun bezala, ekoizpenaren hazkundera izugarria izan zen, eta arma-motak aztertutik, argi dago, errebolberra izan zela salmentetan izandako arrakastaren erantzule nagusia. Gainera, aipatzekoa da ere, salmenta horien gehiengoak esportazioak izan zirela, hori izanik etorkizunean euskal armagintza metalgintzako beste sektoreetatik bereiziko duen ezaugarri nagusietako bat. Bilakaera faboragarri hau azaltzen duten faktoreak ugariak izan arren, aipagarrienak hurrengoak izango lirateke. Eskaintzaren aldetik, garrantzi handia izan zuen elektrizitatearen erabilerak; izan ere, energi iturri horrek eskaintzen dituen garraio- eta banaketa-erraztasunak sektorearen hazkunde fisikoa posible egin zuten, Ego ibarraren estutasunak sortzen zituen espazio-arazoak gaindituz. Bestetik, eskariaren aldetik ere hobekuntza batzuk izan ziren. Barne-merkatua estua izanik, atzerrian saltzea zen aukera bakarra, eta, garai horretan, komunikazioan eta garraioan izandako aurrerapenak nazioarteko merkatuetara heltzeko aukerak handitu egiten zituzten (Catalán, 1990). Eibarko kasuan telegrafoa 1883an ezarri zen eta trenbidearekin lotura zuzena 1887. urtean (Mugika, 1908: 379-389).

Nazioarteko ekonomian integratzeko prozesu honetara eibartar armaginak ezin hobeto egokitu ziren, zeren patenteen aldetik espainiar legediak emandako zenbait erraztasunetan oinarriturik, atzerritar modeloen kopia merkeak saltzen arrakastatsu suertatu baitziren. Espainian, edozein patenteren jabeak kontzesioa emandako datatik urtebete pasatu baino lehen babestutako ideia ustiatzen ari zela ziurtatu beharra zeukan (Sáiz González, 1999: 278). Baldintza hori bete gabe urtebeteko epea gaindituz gero, patentearen jabeak ideien gainera babesa galdu egiten zuen eta edonork, askatasun osoz, erabiltzeko modua zuen. XIX. mendearen azken laurdeneko arma berri guztiak patentatuak izan ziren, baina espainiar merkatua horren estua izanik, ez ziren praktikan jarri eta euskal armaginen eskura gelditu zen informazio teknologiko hori.

Horrelako kopiak egiteko erabakia euskal armagintzaren baldintza eta ezaugarrien ondorio baino ez zen izan. Ekoizpena hazi zen arren, sektorearen

modernizazioerantz emandako urratsak urriak izan ziren. Industriak, oraindik, Erret Fabrikaren garaiko egitura bera mantentzen zuen. Enpresa handi batzuk zeuden (Orbea y Cía; Garate, Anitua y Cía; Trocaola y Aranzabal etab.) tailer txikiagoei azpikontratatuak piezak erabiliz armak muntatu egiten zituztenak. Tailer txiki horiek, beren inbertsio-ahalmen baxua zela eta, makineria gutxi zeukaten, eta, baldintza horietan, kalitate altuko altzairua erabiltzea ezinezkoa zen. Piezak egiteko lima batekin eskuz eraldatzeko moduko altzairu bigunagoak erabili behar zituzten. Erresistentzia gutxiagoko materialekin egindako errebolber eta pistola horiek ezin zituzten kalitate- eta ziurtasun-maila minimoak eskaini, baina garai horretan, oraindik, Proba Banku Ofizialik ez zegoen² eta euskal armaginak horretaz ere aprobetxatu egiten ziren.

1. grafikoa. Eibarko arma-ekoizpena arma-motaren arabera (1881-1909)



Iturria: Mujica, 1908: 94-95.

Enpresa gehienak besteentzako piezak ekoizten aritutako tailer txiki bezala hasitako lantegiak ziren, eta enpresaburu gehienak, tailer horietan txikitatik lanean aritutako eta arrakasta izandako armaginak baino ez ziren. Beraz, garapen honen errudun nagusiak, harrigarria bada ere, oinarriko hezkuntza jasotako eta euskara hutsez aritzen ziren enpresaburuak ditugu³. Hazkunde-prozesu honen gailurra

2. Armagintzan aritzen ziren Europako herrialde gehienetan honelako erakundeak existitzen ziren. Beraien betebehara egindako armen gutxieneko kalitatea ziurtatzea zen eta armek, frogak gaindituz gero, erakundearen zigilua jasotzen zuten. Eibarren horrelako erakunde bat XIX. mendetik existitu zen baina izaera ofizialik gabekoa, beraz froga ez zen derrigorrezkoa. Horren ondorioz, euskal armaginek kalitate baxuko armak egiteko erraztasunak zituzten. Banku Ofizialen legea 1915. urtean onartua izan zen arren, gerrak eragindako munizioen urritasuna dela eta, bere aplikazioa 1924. urtera arte atzeratu zen. Hortik aurrera arma bat saldu edo esportatu ahal izateko derrigorrez Eibarko Proba Banku Ofizialak markaturik egon behar zen. (Calvó, 1997: 125-127)

3. «Éramos allí todos un poco como “Astuko”, uno de quien le preguntaban a su suegro, analfabeto y sin más erudición que su vascuence de Eibar, que había hecho una respetable fortuna con las armas, yendo a venderlas hasta por las kábilas del interior de Marruecos, del Marruecos de Muley Hasan.

¿Es verdad —le decían— que “Astuko” ha ido a vender armas en Italia? ¿Y cómo se las va a entender con los italianos?

Lehen Mundu Gerrako urteetan lortu zen, urte horietan, eta borrokan aritu ziren herrialdeen eskariari esker, armagintza berriro lortuko ez zituen ekoizpen-mailetara ailegatu baitzen. Gerra horretan gehien saldutako modeloa Belgikako FN enpresak egindako *J. M. Brownings* patentepeko pistola automatikoen kopia izan zen. Arma horiek, hortik aurrera, Eibar motako pistolak bezala ezagutuak izango ziren⁴. Eibar motako pistolen arrakasta, euren prezio baxuan oinarritu zen batez ere eta, salbuespenak salbu, kalitatea ere maila berekoa izan zen.

Lehen Mundu Gerran gertaturikoa, hau da, arma laburren salmenta izugarria, gure gaur egungo ikuspuntutik normaltzat har genezake. Baina, egia esateko, guztiz ezohikoa izan zen urte horietan gertaturikoa. Gerra horretan sortu ziren baldintza bereziak direla eta (lubakietako gerra), armadetako partaide denak, soldaduak barne, horrelako armak erabiltzen hasi ziren eta egoera berezi horrek bultzatu zuen eskaria. Gerra aurreko hazkundera, aipatu den bezala, eskari zibilari loturik gertatu zen eta eskari militarri lotzea sekulako akatsa izango litzateke, armadetan ofizialek baino ez zituztelako horrelako armak erabiltzen 1914. urtea baino lehen.

2. Armagintzaren Auzia

Hogeiko hamarkada ez zen batere ondo hasi euskal armagintzarentzako. Mundu Gerra bukatu eta gero europar herrialde gehienak, gerrako kontratuak bertan behera uzteaz gain, euren industriak babesteko asmotan politika protekzionistak ezartzen hasi ziren. Armen kasuan, horretaz gain, beste arazo bat azaltzen zaigu: merkatua gerra-garaian egindako armez gainezka zegoen. Beraz, zailtasunez beteriko kanpo-merkatu horietan gehiegizko eskaintza egonik barne-merkatu estua baino ez zitzaien gelditzen euskal armaginei. Baina horretan ere oztopoak topatuko dituzte: 1920an Espainiako gobernuak, armen salmenta eta merkataritza arautu eta kontrolatzeko asmoz, onartutako legedi berria, hain zuzen.⁵

Legedi horren helburua anarkisten atentatuak eta *pistolerismoaren* fenomenoarekin bukatzea zen. Horretarako *Guía de Pertenencia* izeneko dokumentu berri bat sortu zuten, Espainian saldutako arma bakoitzaren jabeak eduki behar zuen armaren nortasun-agiri moduko bat.

- Ya se las arreglará —contestaba el interpelado tranquilamente— sabiendo como sabe un poco de “castillano”.

Éramos así en Eibar, de los que nos arreglábamos en todas las cosas en que estábamos —cosas de carácter local pero de significación nacional e internacional— con un poco de castellano» (T. Echevarría, 1968: 194-195).

4. Eibartar konpainiek Eibar motako 7,65 mm-ko 816.875 pistola automatiko eta mota eta kalibre ezberdinetako 779.714 errebolber saldu zizkieten Frantzia, Britainia Handia, Italia eta Errumaniako armadei. [Eibarko Udal Artxiboa. Udal Fondo. Azpifondo historikoa (sign. B54)]. Datu hauek, izugarriak izan arren, ez digute negozioaren benetako tamainaren berri ematen, Elgoibarko Gabilondo y Urresti-k eta Gernika-Lumoko Esperanza y Unceta-k eta Alkartasuna y Cia-k egindako salmentak ez dituztelako kontuan hartzen. Gainera, kontuan hartu behar dugu ere, zenbait hilabetetan Alemaniara armak bidali egin zirela. Beraz euskal armagintzak saldutako armen kopurua bi milioi unitateren inguruan ibili zela estima dezakegu.

5. 1920ko apirilaren 29ko Tinbre Legea eta 1920ko irailaren 15eko Erret Dekretua.

(...), la tenencia o posesión de toda clase de armas deberán acreditarse por un documento especial, que constituirá la justificación del derecho al uso de cada una de aquellas, y que habrá de ser visado por el Instituto de la Guardia Civil, expidiéndose en los efectos timbrados que a dicho fin pondrá el Estado a la venta, en los que se consignará la clase de arma, fábrica de procedencia, número de fabricación y cuantas características puedan distinguir de otra similar, (...) (1920ko apirilaren 29ko Tinbre Legea).

Lege berri horrek arma bat erosteko beharrezkoa zen burokrazia ere handitu egiten zuen:

Artículo 4º. Los dichos comerciantes autorizados exigirán, para expender cada arma, la presentación de la licencia, y con relación a ella extenderán la guía de pertenencia del arma en el impreso que fija la ley citada en el artículo anterior, sin entregar el arma hasta que el comprador presente dicha guía firmada y sellada por la Guardia Civil, a la que, para efectuarlo, le será exhibida la licencia de uso de armas, y separará y reservará la matriz de aquella. (...) El particular que desee enajenar a otro un arma, habrá de hacerlo precisamente con su guía de pertenencia y sólo quien le exhiba licencia de uso de armas, la cual se reseñará en el recibo del importe del precio en que la enajene, y el adquirente estará obligado a proveerse de nueva guía dentro de las veinticuatro horas siguientes a la compra, presentando la guía anterior y el arma en el puesto de la Guardia Civil de la demarcación del lugar de la adquisición (1920ko irailaren 15eko Erret Dekretua).


Horretaz gain, arma baten jabe izatearen kostua ere izugarri handitzen zen. *Guía* horiengatik urtero tasa batzuk ordaindu behar ziren eta legediak, gainera, armak erabiltzeko lizentzien tarifak igo egin zituen. Horrek guztiak, noski, salmentetan eragina izan zuen. Hurrengo grafikoak adierazten digun bezala, sektorea gerra osteko krisialdiaz nolabait suspertzen hasita zegoenean, salmentek beharrezko joera hartu zuten berriro ere.

Horren aurrean armaginek, udal-erakunde eta Madrileko Gorteetako ordezkari politiko batzuen buruzagitzapean, gobernuak legearen aplikazioa bertan behera uzteko kanpaina bat bultzatu zuten. Ez zuten askorik lortu ordea. Ehizarako eskopeten kasuan legearen atal batzuk leundu ziren arren, arma laburren kasuan gobernuaren iritzia aldatzea ezinezkoa izan zen. Armagintzaren Auzia izenaz ezagutu zen kanpaina horretan zehar armagintzan aritzen ziren udaletako ordezkari guztiek dimititu egin zuten eta euskal udalerrien gehiengo batek eskualdeari bere babesa eta laguntza eskaini zion. Horretaz gain, Gorteetarako hauteskundeetan herri-hautagai bat aurkeztea ere proposatu zuten, eta bere betebeharrak behinena armagintzaren eskubideak Madrilen defendatzea izango zen. Harriztekoa bada ere, garai hartan nagusi zen jauntxokeria gaindituz, Juan Urizar eibartar zinegotzia diputatu hautatu zuten.

Beste neurri batzuen artean, armagintzako enpresa guztiak integratuko zituen Trust bat osatzeko proiektua aurkeztu egin zen, baina ez zuen gobernuaren oniritzia jaso. Geroago, legea indarrean jartzeak sortutako kalteengatik konpentsazio bat ere eskatu zitzaion Estatuari, kapital horrekin industriaren eraldatze-prozesua aurrera eramateko arazoak eta kalteak txikiagoak izango zirelakoan. Baina, Espainian gertatzen ari ziren aldaketa politikoek ez zieten ezertan lagundu. Primo de Rivera-ren diktadurarekin, pixkanaka, kanpaina hau indarra galtzen hasi

zen eta ezin izan zuten administrazioak hartutako erabakia aldatzea lortu (Eguren, 1923).

2. grafikoa. Eibarko armagintza-industriaren salmenten kopurua (1880-1935)



Iturria: Paul Arzac, 1976.

Baldintza haietan, kanpo-merkatu ugari itxita eta barnekoa mugatuta zegoelarik, sektoreko enpresak krisia ahal izan zuten moduan gainditzen saiatu ziren. Horietako asko, egoerari aurre egiteko, euren ekoizpenaren dibertsifikatze-prozesuak gauzatzeko hasi ziren. Adibidez, Orbea y Cía, Beistegui Hermanos edo Garate, Anitua y Cía bizikletak egiten hasi ziren; ALFA, Eibarko langile sozialistek errebolberrak egiteko sortutako enpresa kooperatiba, josteko makinak egiten hasi zen (Iza-Goñola, 2005) eta Olave, Solozabal y Cía-k bulego-materialerako pausua eman zuen. Azken enpresa horrek, gaur egun ere, bere errebolberretan erabiltzen zuen “El Casco” marka erabiltzen du. Beste batzuek, ordea, Mundu Gerran zehar bai ekipo-ondasunen ikuspuntutik bai produktuaren kalitatearen aldetik bereganatutako ahalmenetan oinarriturik, erabaki zuten arma laburrak enpresaren ardatza izaten jarraitzea. Beraien estrategia hazten ari zen eta kalitatea balioesten zuen merkatu berri batean aritzea izan zen, kontrata ofizialen merkatuan, hain zuzen.

20ko hamarkadan erakunde ofizial ugari, Espainian zein beste herrialde batzuetan, arma laburrekiko izandako jarrera aldatzen hasi zen. Lehenago beraien langileetako batzuek baino ez zituzten arma laburrak erabiltzen (ofizialek, adibidez), baina hamarkada horretan, arrazoi ezberdinengatik, erakunde horietako gero eta partaide gehiagoren ekipoaren barruan pistola automatikoak barneratzen hasi ziren⁶. Konkurtso publikoek kalitate-maila altua eskatzen zuten eta gainditu beharreko erresistentzia-frogak gogorak ziren benetan. Kalitate altu hori eskaini

6. Garai hartan Guardia Zibileko kapitaina zen Pedro Checa-k horrela defendatzen zuen ofizialak ez zirenak ere arma laburrekin hornitzearen beharra: «*Es lógico pues, que hoy cuando el cometido de la fuerza se desarrolla más en los grandes centros de población y en el ferrocarril que en los campos y caminos solitarios, y es mayor la probabilidad de un atentado, que los guardias no podrían repeler con el fusil sin riesgo de terceras personas, se les provea de pistolas de fácil manejo, cuyo alcance, siempre muy inferior al de las armas largas, no pueda acarrear consecuencias funestas para algún inocente*». *Revista Técnica de la Guardia Civil*, 141. zk., 1921eko azaroa (Nuñez Calvo, 2002: 87).

behar izatea enpresentzako arazo bihurtu zen, zeren arma horiek, garestiagoak izanik, merkatu pribatuan saltzen zailagoak baitziren.

Gernika-Lumoko Unceta y Cía eta Eibarko Bonifacio Echeverría izan ziren bide horretan aritu ziren enpresa aipagarrienak. Lehenengoak espainiar armadaren-tzako pistolak hornitzeko konkurtsoa irabazi egin zuen, geroago *ASTRA 400*⁷ izenarekin ezagutuko zen modeloarekin; eta, bigarrenak, Guardia Zibileko tropa-gizonak hornitzekoa *STAR 1921* pistolarekin (geroago *Modelo A* bezala ezagutuko zena). Estrategia honen bitartez enpresa hauek, kontratu publikoen babespean, krisia gainditzeko arazo gutxiago izan zituztela pentsa genezake. Baina, Estatuak egindako erosketak ministerio bakoitzaren urteroko aurrekontuaren menpekoak izanik, arma bat arazuko izendatzeak ez zituen enkarguak ziurtatzen. Beraz, enpresa hauek ere arazo larriak izan zituzten, ailegatzen ez ziren kontratu publikoen zain zeudela, euren biltegietan armak pilatzen baitzihoazen. Hurrengo laukiak urte haietako Unceta y Cía-ren izakinen tamaina eta balioaren berri ematen digu, datu adierazgarrienak, dudarik gabe, armadaren arazuko modeloei dagozkienak ditugu. Ondorioz, enpresa hauek ere, krisiaren intentsitatea dela eta, ekoizpen-adar berriak sortzera behartuta aurkitu ziren⁸.

1. taula. Unceta y Cía-ren pistola automatikoen izakinak 1927 eta 1928an

Modeloa	1927/10/13	Estimatutako balioa	1928/02/14	Estimatutako balioa
	Unitateak	Pta.	Unitateak	Pta.
Astra 200	5000	92500	3000	55500
Astra 300	4000	169000	3000	126750
Astra 400	7000	420000	6000	360000
Astra 700	3000	66000	2000	44000
Guztira	19000	747500	14000	586250

Iturria: Gernikazarra Artxiboa. Unceta y Cía. Fonda. 65. eta 67. gutunen liburu kopiazaileak.

3. Gure istorioaren protagonistak: Beistegui Hermanos, Bonifacio Echeverría eta Unceta y Cía

Euskal armagintzaren eta Asiako merkatuaren arteko harremanekin hasi baino lehen, jadanik aipatuak izan diren arren, gure istorio honetako protagonistek aurkezpen txiki bat behar dute. Artikulu honen helburua hiru enpresa horien historia kontatzea ez denez, eta nahiz eta beraien biziraupena benetan luzeagoa izan, aurkezpen labur hau 1940ko hamarkadara arte baino ez dut luzatuko.

Beistegui Hermanos enpresa Domingo, Juan eta Cosme Beistegui anaiak sortu zuten 1910ean. Domingo-k dirua eskaini zuen, Juan-ek armagintzan esperientzia

7. Geroago pistola hau ere Karabineroen, Armadaren, presondegietako pertsonalaren eta Guardia Zibileko ofizialen arazuko armatzat onartua izan zen.

8. Unceta y Cía-k dendetarako balantzak egiteko sekzioa sortu zuen eta Bizkaiko beste enpresa batzuentzako fresak (Babcob Wilcox) eta bonbetarako espoletak (Talleres de Guernica) prestatu zituen. Bestetik, Bonifacio Echeverría-k esku-burdinak ekoizteaz gain, Eibarko beste enpresentzako mota ezberdinetako lanak ere egin zituen.

eta Cosme-k merkataritzan aritzeko ahalmena. Enpresa honek Lehen Mundu Gerra hasi zenean 40 langile inguru zituen eta Eibar motako pistolak ekoizten zituen; gerran zehar Frantziari 55.000 eta Italiari 6.000 pistola saldu zizkien⁹. Lehen aipatu bezala, 20ko hamarkadan bizikletak egiten hasi zen, eta Gerra Zibilaren ostean, armen sektorean aritzeko baimena galdurik, hori izan zen bere jarduerarik nagusia. Bere armak, Eibarko armagintzan ohikoa zen bezala, marka ezberdinen pean saldu zituen: Anglo Ottoman, Phenix, Bulwark, Libia, Paramount, Royal etab. (Calvó, 1997: 132-135)

Bonifacio Echeverría enpresa ere bi anaiek sortu zuten, Bonifacio-k eta Julian-ek. Julian Echeverría, zenbait patenteren jabe izanik, bere modeloak beste armagin batzuen bitartez esperimentalki ekoizten ibili zen. Azkenik, anaiarekin batera enpresa sortzea erabaki zuen, "B. y J. Echeverría" delakoa, baina handik urtebetera, 1910ean, elkartea desegitea adostu zuten. Hortik aurrera, enpresa berriari bere izena ezarri eta gero, Bonifacio-k ekoizpenaren kontrola bereganatu zuen eta Julian-ek, zenbait patenteren jabetza mantendu eta pistola bakoitzeko komisioa jaso arren, enpresa utzi egin zuen¹⁰. Enpresa honek 1914. urtean bere lantegian 40 langile zituen lanean eta gatazka horretan zehar Frantziari 57.000 pistola saldu zizkion¹¹. Orduan, ez zituen Eibar motako pistolak soilik saldu, horretaz gain Julian-en asmakizuna zen STAR pistola ere saldu zuen¹². Aurreko puntuan komentatu dugun bezala, enpresa honek egindako modelo bat Guardia Zibilaren arauko pistola izendatua izan zen 20ko hamarkadan. Gerra Zibila bukatu eta gero, 1946an, Armada arma berri batez hornitzeko konkurtsoa Unceta y Cía-ri irabazitakoan Estatuaren arma hornitzaile nagusia bihurtu zen, pistolak ekoizteaz gain, Guardia Zibil eta Poliziarentzat subfusilak ere egiten aritu zelako. Enpresa honek erabilitako markak ez ziren aurreko kasuan bezain ugariak izan eta kontzeptu bakar batean zentratu zirela argi dago: Star, Izarra eta Estrella. (Calvó, 1997: 176-181).

Azkenik, Unceta y Cía dugu gure hirugarren protagonista. Enpresa hau 1908. urtean sortu zuten Eibarren Juan Esperanza-k eta Pedro Uncetabarrenechea-k. Lehenengoak, aragoiarra jaiotzez, armagintza-tailerreko lanetan sekulako esperientzia zeukan. Bestetik, Pedro Uncetabarrenechea burdindegi baten jabea zen, beraz, merkataritza-lanetan aditua. Hasiera batean "J. Esperanza y P. Unceta" enpresa Eibarko beste lantegi batzuentzat pistolen piezak egiten hasi zen, baina laster, pistola osoak ekoizteko pausua ematea erabaki zuten. Horretarako, Pedro Careaga eibartar asmatzailearen modelo berria *Victoria* markapean ekoizten hastea erabaki zuten, eta merkatuan sekulako arrakasta izan ere. Eskuragarri ditugun datu guztien arabera, Careaga-ren modelo hau Eibar motako pistolen ezaugarriak betetzen dituen lehenengo kasua da, eta beraz, Browning modeloen kopia bati buruz ari gara¹³. Enpresa salmentekin batera hazi zen eta 1912rako, 120 langileekin, argi zegoen hasierako tailerreko azpiegiturak eta

9. Eibarko Udal Artxiboa. Udal Fondoa. Azpifondo historikoa (sign. B54).

10. Julian Echeverría 1913an sortu berria zen Eibarko Armagintza Eskolako zuzendari izendatu zuten eta Gerra Zibila hasi arte kargu horretan aritu zen.

11. Eibarko Udal Artxiboa. Udal Fondoa. Azpifondo historikoa (sign. B54).

12. Pistola hau austriar jatorriko Steyr modeloaren kopia hobetua zen. (Hogg eta Weeks, 1978: 88)

13. Nahiz eta lehenago esan bezala Eibar motako pistolak, oro har, kalitate gutxiakoak izan, Esperanza y Unceta etxeak egindakoak salbuespentzat hartzen dituzte autore gehienek (Hogg eta Weeks, 1978: 244-249).

espazioa ez zirela nahikoak. Gainera, urte hartan Campo-Giroko kondearekin, Armadak arauzko izendatutako pistolaren asmatzailearekin, bere armaren ekoizpena hasteko akordio batera heldu ziren. Beraz, etorkizunera begira, espektatibak nahiko onak ziren. Eibarren leku handirik ez zegoenez, eta hango sindikatuen eraginetik ihes egiteko ere, 1913an lantegia Gernika-Lumora lekuz aldatzea erabaki zuten. Hasiera batean gauzak ondo joan ziren, baina laster langileekin arazoak sortu ziren eta greba batean murgildu ziren. Patroiek langileen eskariei erantzuteko asmorik ez zutenez erakutsi, eibartar armaginak euren jaioterrira itzuli ziren. Enpresak, beraz, berriro, zerotik hasi behar izan zuen (Etxaniz, 2000).

Halere, oinarriak sendoak ziren, eta Mundu Gerra hasi zen garairako enpresa, Gernikako langileak prestatu eta gero, sortzear zegoen eskariari aurre egiteko moduan aurkitu zen. Salmentak, kasu honetan ere, garrantzitsuak izan ziren eta ASTRA markapean Frantziari eta Italiari 120.000 arma inguru saldu zizkien¹⁴. Gerra ostean, aipatu bezala, kontratu ofizialak lortzea izan zen enpresaren helburu nagusia eta bere ASTRA 400 modeloarekin administrazioaren zenbait erakunde hornitu zituen. 20ko hamarkadan ere, Juan Esperanza-k enpresa utzi eta, Rufino Unceta-k, Pedro-ren semeak, hartu zuen konpainiaren gidaritza¹⁵. Gerra Zibilean zehar, Gernika bonbardatua izan arren, lantegiak ez zuen kalte handirik jaso, eta okupazioaren ostean, Franco-ren armadentzako armak ekoizten ibili zen. 40ko hamarkadaren hasieran, Bonifacio Echeverría eta Gabilondo y Urresti (LLAMA pistolen ekoizlea) enpresekin batera armak ekoizten jarraitzeko lortutako baimenaz aprobetxaturik, Alemaniari armak saldu zizkion. Hamarkada horretan, ordea, berriro ere arazo larriak izan zituen Armadaren konkurtsoa galdu eta gero, ekoizpena dibertsifikatzen hasi zelarik. Honek ere marka ugari erabili ditu bere armak saltzeko, horien artean: VICTORIA, HOPE, ASTRA, UNION, FORTUNA, BRUNSWIG, MUXI etab.

4. Lehenengo harremanak Asiako merkatuarekin

Artikulu honetako bigarren epigrafean azalduriko 1920ko hamarkadako krisia nabaria izan arren, oraindik bazegoen hazten ari zen ustiatu gabeko merkaturik: Ekialde Urruna, hain zuzen ere. Hango abagune politikoa zela eta, armen eskaria izugarria zen, eta hein berekoak ere alemaniar ekoizle eta merkatariak bertan burutzen ari ziren negozioak.

Unceta y Cía-k, urte haietako zailtasunak direla-eta langile-kopurua minimora txikiagotuta zuela, alemaniar merkatarien eskari horretan armen merkatuan mantentzeko aukera ikusi zuen. Baina, lehenago aipatu bezala, kalitate altuko armak baino ez zituen bere biltegietan. Orduan, zenbait euskal ekoizle pairatzen ari zen egoera larriaz aprobetxatuta, Eibarko tailerretan egindako kalitate eta prezio baxuko Eibar motako pistola eta errebolberren esportatzaile bihurtzea erabaki zuen.¹⁶ Arma horiek, bere jabetzapeko merkataritza-marka ezarri eta

14. Esperanza y Unceta-k Eibarko Alkateari 1923ko abuztuaren 5ean bidalitako gutuna. Eibarko Udal Artxiboa. Udal Fondoa. Azpifondo historikoa (sign. B54).

15. Izena ere aldatuko da, Esperanza y Unceta-tik Unceta y Cía-ra.

16. Unceta y Cía-k 7,65 kalibreko pistolen bi modelo ekoizten zituen: kalitate handiagoko Astra 300 modelo 42,25 pezetatan saltzen zuena eta bestetik Astra 700 delakoa, 22 pezetatan. Eibartar armaginen kalitate baxuagoko kalibre bereko pistolak (Astra 100) 15,75 pezetatan saltzen zituen. Bilboko Felix Zalvide bezeroari 1928ko otsailaren 14an bidalitako gutuna. Gernikazarra Artxiboa. Unceta y Cía. Fondoa. 67. gutunaren liburu kopiazailea.

gero, Alemaniara bidaltzen ziren¹⁷. Bitartekari-lan horregatik edozein esportatzaileri zegokion prezioaren gaineko % 15eko komisioa jasotzen zen.¹⁸ Esportatutako pistolen kalitate baxuaz jabetzeko bezeroengandik jasotako kexuak irakurtzea baino ez dago:

Nuestro cliente nos dice verbalmente según copiamos a continuación: “Al examinar la citada pistola observamos a nuestro gran pesar que se paraba muchas veces, cuyo defecto hay que atribuir a la ejecución defectuosa del cargador. Las partes superiores del cargador que sujetan el cartucho exterior, sirviéndole de conducción no estaban lo suficiente paralelas resultando que el cartucho de la pistola se paró 14 veces en 50 tiros y esto con que habíamos arreglado el cargador un poco con un destornillador, reduciendo así el número de paros. Además existe el defecto de que los pasadores no tienen la suficiente sujeción, saliendo con algunos tiros fuera los pasadores de la aguja percutora y aquél del disparador, etc.” (Ermuko Domingo Acha y Cía-ri 1926ko abenduaren 6an bidalitako gutuna. Gernikazarra Artxiboa. Unceta y Cía. Fondoa. 61. gutunaren liburu kopiazailea).

Debemos llamar su atención sobre las muchas reclamaciones que acerca de sus pistolas estamos recibiendo en el último tiempo. Nuestro representante de Ultramar nos escribe recientemente: “Un cliente mío me escribe devolviendo dos pistolas diciendo que no se atreve a ofrecerlas por reunir tan malas condiciones que las hacen peligrosas a las personas que las usen. Ustedes ven cuánto la clientela está descontenta con estas pistolas, casi en cada remesa que hago me devuelven algunas. Una vez no se puede disparar, en otras se puede disparar cuando el seguro está en su posición de seguridad, otras veces la corredera tiene mucho juego” (Ermuko Pedro Izaguirre-ri 1928ko martxoaren 3an bidalitako gutuna. Gernikazarra Artxiboa. Unceta y Cía. Fondoa. 67. gutunaren liburu kopiazailea).

Hogeiko hamarkadaren erdialdean hasi ziren japoniar inportatzaileekin harreman zuzenak izaten. Merkatarari horiek, batez ere, 7,65 kalibreko pistola merkeen inportazioan zeuden interesaturik. Daukagun informazioaren arabera, Unceta y Cía-k merkatu berri batean sartzeko jarraitzen zuen prozedura hurrengoa zen. Lehenengo aritu nahi zuen herrialdeetan Espainiak zituen ordezkari diplomatikoei gutuna bidaltzen zieten. Gutunean, beren produktuen kalitateaz gain, espainiar Armadak erabiltzen zuen pistolaren ekoizleak ere bazirela esaten zuten. Diplomatikoei beraien produktuen ordezkartzan eta salmentan interesaturik egon zitezkeen merkatariei buruzko informazioa eskatzen zieten. Normalean ere, pertsona horiek erakunde publikoekin harreman estuak izatea eskatzen zuten, euren lehen-tasuna izaera ofizialeko kontratuak lortzea baitzen.

Behin diplomatikoaren erantzuna jasota, hark bidalitako zerrendako merkatariei beste gutun bat bidaltzen zieten, berriro ere euren produktuen ontasuna aldarrikatuz eta herrialde horretan enpresaren ordezkartza eskainiz. Negozazioek aurrera eginez gero eta jasotako txostenak faboragarriak baziren,¹⁹ kontratua sinatu

17. Batez ere, honako ekoizle hauen armak esportatu zituen modu horretan: Santiago Salaverría (Ermua), Pedro Barrenechea (Ermua) eta Barrenechea y Gallastegui (Eibar). Errebolberren kasuan, kopuruak txikiagoak eta eskariak urriagoak izanik, eibartar konpainia ugarietatik jaso zituen.

18. Esportazio-negozio honetan, arma laburrak esportatzeaz gain, Eibarko armaginen eskopetak ere saldu zituzten.

19. Txosten hauek herrialde horietan Bilboko Bankuak zituen ordezkariengandik edo lan horretan espezializaturik zeuden enpresetatik jasotzen zituzten.

egiten zen. Hortik aurrera ordezkariak merkatu horretan armen publizitateaz eta agintarien aurrean produktuen berri emateaz arduratu behar ziren. Horren truke, ordezkariari ezarritako prezioaren gaineko % 5eko komisioa eskaintzen zitzaion, eta prezio hobeaz lortuz gero, gainprezioa erdibana banatzen zen ordezkari eta enpresaren artean.

Japoniako kasuari dagokionez, lehenengo kontaktuei buruzko informaziorik ez daukagu oraindik. Baina, geroagoko korrespondentzian ikusitakoaren arabera, badirudi eredu ezberdin bati jarraitu ziotela, edozein ordezkari-tzita-kontratu sinatu aurretik hango merkatariei eginiko salmentak garrantzitsuak izan ziren eta. Noizean behin, eta beste herrialde batzuen kasurako, eurekin lehendik merkataritza-harremantetan aritutako enpresak erabiltzen zituzten bitartekaritza-lan horietan²⁰ edo interesaturik zeuden herrialdeetako merkataritza-aldizkarietan iragarkiak argitaratu egiten zituzten.

Japoniara bideratutako salmenta gehienak Kobe hiriko merkatariei egin zitzaizkien.²¹ Urruntasunak sortzen zituen mesfidantzek bultzaturik, trukeak burutzeko merkataritza haiek ezarritako baldintzak horren zurrunik, ezen benetan zaila egiten baitzen hara inolako produkturik bidaltzea. Alde batetik, Japoniako aduanek su-armen piezen gainean ezarritako muga-zergak arma osoen gainekoak baino baxuagoak izanik, merkataritza haiek batzuek, lote eta itsasontzi ezberdinetan armak desmuntaturik bidaltzea eskatzen zuten²². Bestetik bidalketak, nahitaez, *Nippon Yusen Kaisha* (N.Y.K.) edo *Osaka Shosen Kaisha* japoniar itsas konpainien bitartez egitea eskatzen zuten. Hori dela eta, armak lehenengo Anberesera bidali behar ziren, hori baitzen, armen merkataritzan baimenduta zeukaten portuen artean, Bilboko portuarekin kombinaziorik onena eskaintzen zuena²³. Merkatua horren urrun egonik, Unceta y Cía-k ere bere neurriak hartzen zituen. European prestigio nahikoa zuen bankuren batek enkarguaren diru-kopuruagatik Kreditu Gutun bat ziurtatzen ez zien bitartean, ez zuten inolako armarik bidaltzen. Trukeetan gehien erabili zen bankua Londresen egoitza zeukan *Yokohama Specie Bank* banku japoniarra izan zen²⁴.

20. Adibidez, behin, Lloyd's britaniar konpainiak Bilbon zeukan agenteari, James Innes-i, laguntza eskatu zioten Ingalaterrarako ordezkari egoki baten bila zebiltzanean. 1927ko azaroaren 11n James Innes-i bidalitako gutuna. Gernikazarra Artxiboa. Unceta y Cía. Fondoa. 65. gutunaren liburu kopia-tzailea.

21. Konpainia ezberdinekin harremantetan aritu ziren arren, garrantzitsuenak hurrengoak izan ziren: *A. Oda & Company*, *Degay Firearms* eta *Ohashi Trading Company*.

22. Pistola desmuntaturik bidaltzeak eskaintzen zuen prezioaren murriztapena hain zen garrantzizkoa, ezen azkenik, Unceta y Cía berak ere, merkatu horretan lehiakortasun handiagoa lortzeko asmoz, bere bezeroei sistema hau gomendatzen baitzien.

23. Beste aukerarik ere bazegoen. Adibidez Bartzelonatik irteten ziren *Compañía Trasatlántica* delakoaren ontziak erabiliz. Baina enpresa horrek ez zuen maiztasun nahikorik eskaintzen, bi hilabeterik behin baino ez (Bartzelonako *Astigarraga y Arzuaga Lda*-ri 1926ko uztailaren 12an bidalitako gutuna, Gernikazarra Artxiboa. Unceta y Cía. Fondoa. 60. gutunaren liburu kopia-tzailea). Anberesetik, Bremenetik edo Hanburgotik japoniar nabigazio-konpainietako ontziak hamar egunik behin irteten ziren, eta portu horiek Bilborekin ezin hobeto konektaturik zeuden (Kobeko *Elko Trading Company*-ri 1926ko irailaren 17an bidalitako gutuna. Gernikazarra Artxiboa. Unceta y Cía. Fondoa. 60. gutunaren liburu kopia-tzailea).

24. Banku hau Bilboko Bankuak Japonian zeukan ordezkaria dugu. Gutxiagotan izan arren, Londresen egoitza zuen beste banku bat ere erabili izan zen: *The Sumitomo Bank Limited*.

Bestelako euskal armaginak ere, Beistegui Hermanos batez ere, Asiara armak bidaltzen hasi ziren, hango merkatuagatik Unceta y Cía-rekin lehiatuz. Hori dela eta, gernikar enpresako agintariak prozedura malguago bihurtzen saiatu ziren, lehia horretan eraginkorrakoak izateko asmoz. 1928. urtean Anbereseko portuan kontsigna bat ireki egin zuten bertan arma-kopuru finko bat biltegitratuta edukitzeko beti, horrela, Asiatik heldutako enkarguei azkarrago erantzun ahal izango zieten²⁵. Belgikako biltegi horretako loteren bat saltzea lortzen zutenean Ermuko edo Eibar-ko ekoizleari berri bat enkargatu egiten zitzaion, eta, saldutako armen ordainketa bezala, hirurogei eguneko epea zuen letra emanaz. Egindako lote berria Anbereseko biltegitara bidali egiten zen eta, salmenta lortzen ez zen bitartean, ez zitzaion hornitzaileari ordaintzen²⁶.

Salmentak igo egin ziren, hilabetero mila arma baino gehiago bidaltzen ari zirelako. Asiako merkatuak erakusten zuen potentzial eta dinamismoak hango bezeroen ezaugarrien ezagutza hobea eskatzen zuen. Elkar ezagutzeak konfiantza handitu eta ordainbide malguagoak erabiltzeko aukera emango luke. Hori izan zen, bai Unceta y Cía-k bai Beistegui Hermanos-ek, Japoniara merkataritza-ordezkaririk bidaltzeko erabakiaren arrazoia²⁷. Japoniarrak ere, interes bereberak bultzatuta, Euskal Herrira bisitan etorri ziren, nahiz eta hurrengo gutunak erakusten digun bezala arazo txiki batzuk sortu.

In the meantime we had the pleasure to receive the visit of your Mr. Ohashi, to whom we have shown our Departments for fabrication of firearms, materials of War and of german silver goods and we hope that he will have the best impressions. We are very sorry indeed that we were not able to make us understand about the different topics of importance and we hope to receive by an early mail your extensive informations. Your letter in which you announced us that Mr. Ohashi does not understand any foreign language (of the 9th Octbr.) arrived us the 8th. Inst. and as we did receive the visit already the 1st inst. we were not advised at due time to search a person who can speak japanese (Kobeko The Ohashi Trading Company-ri 1926ko azaroaren 17an bidalitako gutuna. Gernikazarra Artxiboa. Unceta y Cía. Fondoa. 62. gutunaren liburu kopiatzailea).

Euskal enpresek bidalitako ordezkaririk haiek, kasualitatez edo ez, beraien enpresetako esportazio-buruaren karguaren jabe ziren eta, biak ere, alemaniarrak ziren. Orain arte hori frogatzeko aukerarik izan ez dugun arren, alemaniar langileak kontratatzea nazioarteko merkatuetan aritzeko estrategia bat izan liteke ere. Garai

25. Legediaren ondorioz Espainiatik munizioak esportatzeko zeuden oztopoak zirela eta, biltegi horretan Frantzia eta Belgikan erositako munizioak ere eduki zituzten, gero handik, holakorik eskatzen zuten bezeroei bidaltzeko. Adibidez, ASTRA 400 pistolak espainiar Armadan arauzkoa zen kalibrea erabiltzen zuen, 9 mm Luze edo Bergmann izenaz ezagutzen dena. Baina munizio hori Hego Amerikan horren ohikoa ez zenez, hango gobernuekin izenpetutako kontratuak betetzeko, armekin batera horientzako beharrezkoa zen munizioa ere saldu behar zieten.

26. Ermuko Pedro Izaguirre-ri 1928ko otsailaren 4an bidalitako gutuna. Gernikazarra Artxiboa. Unceta y Cía. Fondoa. 65. gutunaren liburu kopiatzailea

27. «*The principal object of this voyage will be to visit our many japanese friends imposing us personally of the conditions of the chinese and japanese markets, examining the question as to what we shall be able to extend us regarding concession of credit, being naturally understood that business could be increased granting some facilities of payment. Our most interest is to satisfy our clients which would reaction in development of the business*». Kobeko The Ohashi Trading Company-ri 1926ko urriaren 6an bidalitako gutuna. Gernikazarra Artxiboa. Unceta y Cía. Fondoa. 62. gutunaren liburu kopiatzailea.

hartan alemaniar konpainiek nazioarteko arma-merkataritza kontrolatzen zuten, ez Asian bakarrik, ezpada Balkanetako eta Hego Amerikako merkatuetan ere. Beraz, jatorri horretako langileak kontratatzeak bere logika eduki zezakeen. Beistegui Hermanos-en kasuan, ordezkariaren izena baino ez daukagu, Reynhardt Sickinger (Nelson eta Musgrave, 1980: 200), baina Unceta y Cía-ko langilearen kasuan datu gehiago ditugu. Esnest Borchers Magdeburgon jaiotakoa zen eta enpresak 1924ko azaroaren 1ean kontratatu zuen, bere aktiborik handiena ezagutzen zituen hizkuntzak izanik. Bere ama-hizkuntzaz gain, gaztelania, ingelesa eta frantsesa menperatzen zituen eta²⁸. Ordezkari horrek 1927ko otsailean Ekialde Urrunera egindako bidaiara ziur pasadizoz beterikoa izan zela, batez ere, bere ibilbidea kontuan hartzen badugu. Alemaniatik eta Poloniatik pasatu eta gero, Moskura joan zen, handik, Transiberiar trenbidea hartuta Mantxuriara heldu zen, azkenik Korea gurutzatu eta itsasoz Japoniara heltzeko (Nelson eta Musgrave, 1980: 207).

Berak bidalitako txostenik ez daukagu, baina Gernikatik bidali zizkieten gutunak bai eta horietan, konfirmazioa lortzeko, Japoniatik bidalitako telegramen kopiak agertzen dira. Lehenengoan ez zuen merkatuaren egoeraz berri onik eskaintzen, 7,65 kalibreko armak ugariak ziren eta lehia, batez ere alemaniar jatorrikoa, handia²⁹. Baina, japoniar merkatariekin izandako bileretan hau ondorioztatu zuen: japoniar merkatua ez zela euren hara bidalitako armen helburua. Merkatu hori, legez oso mugatua egonik, garrantzirik gabekoa zen, euskal armak ez ziren Japonian saltzen, Kobetik Txinara bidaltzen ziren.

5. Pistola metrailadoreak eta Txinako merkatua

Txina, hogeiko hamarkada osoan zehar, gerra zibilean murgildurik bizi zen. Lurralde osoa gerra horretan ari ziren alderdiek kontrolaturiko erresuma txikietan banaturik zegoen. Batzuek, nolabaiteko ofizialtasuna erakutsiz, armada erregularrak zituzten, Nanking edo Pekineko gobernuak kasu. Horretaz gain, iparraldeko Gerra Jauntxoek ere euren armada pribatuak zituzten. Armada horietako bakoitzak ehun mila lagun baino gehiago biltzen zituen eta horiengandik sortutako armen eskaria benetan garrantzitsua zen. Munduko eskualde horretan interesak zituzten potentziek, horien artean Japonia bera, Txinan gerra-armak sartzeari debekatzen zuen nazioarteko akordioa sinatu zuten. Akordio horren barruan defentsa pertsonalerako armak sartzeko ez zirenez, urte horietan arma-mota horren eskaria handitu egin zen (Antaris, 1988: 134), hortik letorke euskal armaginen produktuengatik japoniarrek erakutsitako grina. Dena dela, arrakasta handiena lortu zuen modeloa Mauser C96 pistola izan zen; izan ere, txinatar soldaduen arma estandarra izatera ere heldu zen³⁰. Mauser 1896 pistolak 7,63 mm-ko kartutxo indartsua³¹ erabiltzen zuen eta, horretaz gain, txinatar merkaturan arrakastatsu bihurtuko zuen ezaugarri berezi bat ere eskaintzen zuen: kaxa edo kulata bat itsasteko aukera, printzipioz

28. Gernikazarra Artxiboa. Unceta y Cía. Fondoa.

29. Ernesto Brochers-i 1927ko martxoaren 20an Kobera bidalitako gutuna. Gernikazarra Artxiboa. Unceta y Cía. Fondoa. 62. gutunaren liburu kopiazailea.

30. Merkatu horretan 1920-1930 epean saldutako Mauser pistolen kopurua 400.000 unitate ingurukoa izan zela uste da (Antaris, 2001: 441).

31. Kartutxo hau, kalibre txikiak izan arren, nahiko luzea zen eta bolbora-kopuru handia zuen. Horren ondorioz, balak abiadura handia hartzen zuen eta txikia izanik aireari erresistentzia txikiagoa eskaintzen zion. Urruneko helburuei tiro egiteko aproposa, beraz.

pistola bat zena urrunera tiro egin zezakeen karabina bihurtuz³². Kulata hori, barrutik hustuta egonik, armaren zorro moduan ere erabil zitekeen. Beraz, Mauser pistola arma luze bihurtzeko ahalmena zeukan arma laburra dugu; hau da, erabil-tzailearen erabakiaren arabera gerra edo defentsa pertsonalerako erabil zitekeen arma eta, ondorioz, nazioarteko debekua gainditzeko aproposa. Egoera horretaz aprobe txatu zen lehenengo euskal armagina Bonifacio Echeverría dugu. Horrek bere STAR Modelo A pistola eraldatu zuen 7,63 mm-ko Mauser kartutxo arma horretan erabilgarri izateko eta, horretaz gain, kanoia luzatu, kaxa edo kulata egokitu ahal izateko kirtena aldatu eta urruneko tiroa errazteko mira bat ere jarri zion. Arma horri buruz dauzkagun lehenengo datuak 1924koak dira (Antaris, 2001: 441).

Ernest Borchers, Unceta y Cía-ko langilea, Japoniara heldu zenean mota horretako armek merkatu horretan eskaintzen zituzten aukerez jabetu egin zen. Gainera, beraiekin lehian ari ziren Beistegui Hermanos eta Bonifacio Echeverría, jadanik, holako armak saltzen hasiak ziren.

This [Astra 7,63mm] pistol would be the most important model. Mr. Degay showed me his purchase order book and original invoices, according to which he orders monthly quantities of 1.000 to 1.500 Mauser 7,63mm pistols, and recently he ordered 1.000 Star [7,63mm] pistols. He called my attention, once again, to this model and, of course, told me that if we still want to do something with this [Astra 7,63mm] pistol it must be soon, if we do not want to happen with the Star 7,63 pistols as happen with the Royal, since, once [a pistol is] introduced and known by the purchasers, competition is very difficult regardless of what efforts [are made]. I, personally, was able to convince myself, from visiting the various companies, that the only model which would give us work and which is worth accepting is the 7,63 pistol, as people are looking for a model that is not too complicated which can be offered in comparison with the cheap Mauser. (...), according to the indications, Echeverría must be doing good business. We could do more since we know the clientele better. The most important thing is to prepare, as soon as possible, samples... (Ernest Borchers-ek 1927ko martxoaren 17an Unceta y Cía-ri Japoniatik bidalitako gutuna; Nelson eta Musgrave, 1981: 208).

Baina Unceta y Cía-k ez zuen kalibre horretarako inolako modelorik, eta hasiera batean ez zuten, Borchers ordezkariaren aholkuei muzin eginez, horien ekoizpenean hasteko inolako asmorik erakutsi. Horregatik, euren lehenengo erabakia, horrelako armen kopuru bat alemaniar merkatarari bati erosi eta Japoniara berresportatzea izen zen.³³ Holakorik eskaintzen zuen inor ere topatu ez zutenaz, azkenik, Beistegui Hermanos-ek aurreko urtean hartutako bideari jarraituz, alemaniar pistolaren kopia bat egiten hastea erabaki zuten. Batak zein besteak

32. Arma honen ekoizpena *Mauserwerke AG* alemaniar enpresak 1896an hasi zuen, eta Lehen Mundu Gerran 9 mm-ko kalibreko modeloaren ekoizpenaren maila garrantzitsua izatera heldu zen. Gerra bukatu eta gero, Versailleseko hitzarmenari jarraituz, Alemanian gerrarako erabil zitezkeen armak ekoiztea debekatu egin zen. Arma laburren kasuan —9 mm-ko kalibrekoak— kanoia 100 mm baino luzeagoko edota kulatadun pistolarik ezin zen Alemanian egin. Arrazoi horregatik, alemaniar enpresari en esfortzuak 7,63 mm-ko modeloaren salmentara zuzendu ziren, eta nahiz eta kulatarik gabe saldu, hori itsatsi ahal izateko dispositiboa eta 1.000 metrora tiro egiteko ikuste-puntua ere bazituen (Hogg eta Weeks, 1978: 163-164).

33. Schmalkalden-eko (Alemania) Will&Köhler-i 1927ko maiatzaren 24an bidalitako gutuna. Gernikazarra Artxiboa. Unceta y Cía. Fondoa. 62. gutunaren liburu kopia tzailea.

arma kanpotik baino ez zuten kopiatu, barruko mekanismoak ezberdinak izanik. Kasu bietan jatorrizko modeloa baino sinpleagoak izatea lortu zuten euskal armaginek, produktu bukatua merkatuz. Gainera, kanpo-itxuraren imitazioak, arma hori aspaldikoa eta guztiz ezaguna izanik, ez zuen alemaniar enpresarekin inolako patente-gatazkarik suposatzen³⁴. Unceta y Cía-k Modelo 900 izendatutako pistola berriaren zenbait pieza metalurgia-tailer ezberdinetan azpikontratatu zituen, eta hasiera batean intxaurren zura egindako kaxak beraien lantegian zuzenean ekoiztea pentsatu zuten arren, azkenik hori ere azpikontratatu egin zuten³⁵. Hirurehun ASTRA 900 pistolaz osaturiko lehenengo lotea 1928ko abuztuaren 2an bidali zen Japoniara³⁶.

Salmentak garrantzitsuak izan ziren,³⁷ eta begirada azkar batean, berriro ere, nazioarteko merkatuetan sartzeko imitazio-estrategiaren kapitulu berri baten aurrean gaudela pentsa genezake, hori baitzen, esan bezala, euskal armagintzaren ezaugarrietako bat. Baina, Mauser pistolen kopiei dagokienez, estrategia horren aldaera baten aurrean gaude. Kasu honetan, euskal armaginek berrikuntzarako pausua eman zuten eta, euren armei tiro-mota aukeratzeko mekanismoa barneratzean, jatorrizko modeloa garatu eta hobetu egin zuten. Hau da, euskal armek, palanka txiki bati eraginez, su erdi-automatikoaren (katua sakatzen den aldi bakoitzeko) eta automatikoaren (katua behin sakatuta tiro guztiak bata bestearen atzetik botatzen dira kargadorea hustu arte) artean erabakitze aukera ematen zioten tiratzaileari. Palankaren posizioaren arabera, pistola arrunta zena metrailadore bihurtzen zen.

Orain arte aipaturiko hiru euskal enpresen arteko bakoitzak su automatikoa lortzeko sistema ezberdina asmatu zuen. Horrelako armak ez ziren guztiz ezezagunak. Lehen Mundu Gerratik metrailadore-sua arma laburrei egokitzeko saiakerak ugariak izan ziren, baina arrakastarik gabekoak. Euskal armaginen meriturik handiena, ordea, Mauser pistolak metrailadore-sua egokitze eskaintzen zituen aukerez jabetzea izan zen (Mortera Pérez, 1997: 20).

Jatorrizko modeloaren Mauserwerke ekoizle alemaniarra, berrikuntza horrek ezustean harrapatuta eta merkatutik at geratzearen beldurrez, lehenbailehen suhautatzailea eskaintzen zuten modeloak aurkeztera behartuta aurkitu zen.³⁸ Garai hartako alemaniar enpresaren katalogoek euskal imitazioak sutsuki kritikatzeko zituzten arren (hurrengo testua ikusi), Txinan euskal enpresen negozioa handitzen zihoan eta japoniar bitartekarien boterea gutxitze asmoz Unceta y Cía-k

34. Bartzelonako José María Bolibar patente-agenteari 1928ko otsailaren 21ean bidalitako gutuna. Gernikazarra Artxiboa. Unceta y Cía. Fondoa. 67. gutunaren liburu kopiazailea.

35. Adibidez, malgukiak Eibarko *Hijos de José Valenciaga*-k egiten zituen, kanoiak Zaldibarko *Mateo Sampedro* y Cía-k, kulatak Eibarko *Gaspar Arizaga*-k, armazoiak Legazpiko *Patricio Echeverría*-k etab. 1928ko zenbait gutunetatik lortutako informazioa. Gernikazarra Artxiboa. Unceta y Cía. Fondoa. 67. gutunaren liburu kopiazailea.

36. Gernikazarra Artxiboa. Unceta y Cía. Fondoa. 67. gutunaren liburu kopiazailea.

37. Unceta y Cía-k 1928 eta 1931 urteen bitartean 900 modeloaren 9.050 unitate, 901 modeloaren 1.015 eta 902 modeloaren 3.635 saldu zituen (Antaris, 1988: 134).

38. Hasiera batean, alemaniar enpresa, merkatutik baztertua ez izateko, bere modeloak alda zitezkeen 10, 12 eta 40 tirodun kargadoreekin eskaintzen hasi zen. Horrek arma nabari hobetu zuen, ordura arte kargadorea armazoiaren integraturik egon zen eta. Baina berrikuntza horiek detaile txikiak baino ez ziren su automatikoa egiteko aukerarekin konparatuta. Hori dela eta, 1931n su-hautatzailea eskaintzen zuen 712 modelo saltzen hasi zen (Hogg eta Weeks, 1978: 164).

Shangain elkarte filial bat sortzea erabaki zuen: ASTRA-China Company (Astra, 1958: 18).

WARNING. The principle postulated by Paul von Mauser in 1896 -that the safest type of automatic arm is that with visible hammer- has caused competing firms to market automatics of this type. Recognising the truth of the old adage that "Imitation is the sincerest form of flattery", certain firms have not scrupled to offer arms which, externally at least, appear to be exact copies in all details of the Mauser. It is needless to emphasize the unreliability of such imitations, as they could not -no doubt for purely manufacturing reasons- be built to incorporate the very more assuring Mauser superiority... (Gangarosa, 2001: 101).

Su automatikoak, halere, arazo berriak sortu zizkien euskal armaginei eta horiek gaintzeko euren adimena lanean jarri behar izan zuten. Lehenengo arazoa, eta agian, konpontzen errazena, kargadorearen ahalmenarena izan zen. Mauser pistolak armaren egitura integraturiko hamar tiroko kargadore finkoa zeukan. Ahalmen hori su erdi-automatikoarentzat egokia zen, baina benetan eskasa palanka hautatzailea su automatikorako prest jarriz gero, kargadorea azkarregi husten zelako. Edonork pentsa dezake arazo hori kargadorearen ahalmena handituz erraz konponduko zela, baina horrela pisua handitu egiten da, eta hori, arma laburren munduan, akastzat hartzen da. Mauser motako metrailadore-pistoletan, ordea, kargadore handiago batek, katuaren aurrealdean kokaturik egonik, pisua orekatzen laguntzen zuen. Beraz, nahiz eta pisua pixka bat handitu, aldaketa horrekin lortzen zen arma askoz hobea zen³⁹. Geroagoko modeloek armaren armazoian integraturik ez zeuden kargadoreak erabiltzeko aukera ematean, arma oraindik eta gehiago hobetu zuten.

Su automatikoak sorturiko bigarren arazoa armaren gaineko kontrolarena zen. Modu horretan su egitean, atzeranzko indarrek eraginda, armak gorantz mugitzeko joera zuen, eta ondorioz prezisioa izugarri galtzen zen. Horregatik, txinatar soldaduei, arma hauek albo batetik eutsita erabiltzeko gomendatzen zitzairen, tiroen sakabanaketa horizontala izan zedin. Modu horretan tiro eginez, etsaien multzo handien aurrean, su automatikoa eraginkorra izatea lortzen zen. Negozio honetan aritutako hiru euskal enpresak, arazo honetaz arduraturik, su automatikoaren tiro-frekuentzia murrizteko dispositibo ezberdinak asmatu zituzten. Bonifacio Echeverría-k asmatutako gailuak tiroen maiztasuna minutuko 1.000tik 384ra jaitea lortu zuen (Antaris, 2001: 422) Nahiz eta euskal modelo hauek, erabilitako materialak direla eta, kalitate-arazo batzuk eduki⁴⁰, zenbait arlotan jatorrizko modeloa gaintzea lortu zuten. Edozein kasutan ere, euren abantailarik handiena beraien prezioa dugu. Su-hautatzaile sistemadun Mauser pistola originala, 1932. urteko katalogo baten arabera, 85 \$eko prezioan saltzen zen bitartean Beistegui Hermanos-en MM31 modeloa 22 \$etan lor zitekeen (Gangarosa, 2001: 101). Abantaila nabaria da.

39. Adibidez, ASTRA 901 pistolaren pisua 1,260 kg-koa zen; 20 tiroko kargadorea zeukan 902 modeloarena, aldiz, 1,530 kilokoa; 903 modelook, kargadore aldagarriarekin, kargadore gabe 1,275 kg pisatzen zuen (Morteara Pérez, 1997).

40. Hau izango litzateke Beistegui Hermanos-en Royal pistolaren kasua, baina ez, ordea, 900 serieko ASTRA pistolena, beraien kalitatea originaletik oso hurbil baitzegoen (Gangarosa, 200: 55-56).

6. Negozioaren bukaera

Mota honetako armen garapena eta beraien salmenten hazkundea, 30eko hamarkadan bai Espainian bai Txinan gertatutakoen ondorioz, bertan behera gelditu zen. Espainian Bigarren Errepublikak ekarritako erregimen-aldaketarekin batera, armen produkzioaren gaineko legedia ere aldatu egin zen. Arau berrien artean, gure istorioari dagokionez garrantzitsuena, pistola metrailadoreak gerrarako armak deklaratu zituena izan zen. Horrela, arma horiek, erakunde ofizialekin izenpetutako kontratuak salbu, ezin izango ziren Espainia barruan saldu eta beraien esportazioa sakonki mugatua geratu zen. Lege berrian oinarriturik, gobernuak, 1931ko abuztuan, lantegietan zeuden mota horretako armak bahitu egin zituen. Horietako batzuk, 9 mm-ko kalibrerako ekoizitakoak batez ere, Guardia de Asalto delakoa eta Armada hornitzeko erabiliak izan ziren. Guardia Zibilak ere Unceta y Cía-ren modeloetako bat Modelo F izenpean arauzko deklaratu zuen, eta kopuru batzuk erosi zituen.

1936an gerra hasi zenean enpresa hauen kontrola agintaritzaren menpe geratu zen. Euren esfortzua, une hartan gerran aritu ziren armadak hornitzea izan zen eta bestelako negozioak bertan behera utzi zituzten. Lehenengoz errepublikako indarrentzat egin zituzten armak, eta gero, okupazioaren ostean, Franco-ren armadentzako. Bai batzuentzako zein besteentzako pistola metrailadoreak erabilgarri suertatu ziren. Txinan ere gauzek ez zuten bide hoberik hartu. 1932an Japoniak, bere hedatze-politika militaristari jarraituz, Mantxuria inbaditu zuen. 1937an Txinari gerra deklaratu egin zion, zenbait lurralde eta hiri okupatuz: Nanking, Shangai etab. Azkeneko hori Txinan aritzen ziren arma-merkatari gehienen gune nagusia zen, eta okupatua izateak euskal pistola metrailadoreen negozioa behin betiko amaitzea ekarri zuen.

Espainiako Gerra Zibila bukatzean Franco-ren gobernuak euskal armagintza goitik behera aldatuko zuen legedia onartu zuen. 1941 eta 1944 urteetako dekretuen arabera arma laburren sektorean aritzeko zenbait baldintza ezarri ziren. Gobernuaren arabera euskal enpresa guztietatik hiruk bakarrik betetzen zituzten baldintza horiek: Unceta y Cía-k, Bonifacio Echeverría-k eta Gabilondo y Cía-k. Baimen horiek arrazo teknikoetan soilik oinarritu izana ez dago horren argi, batez ere beste enpresek adierazitakoa kontutan hartzen badugu.

Consideran los industriales fabricantes de armas cortas y largas rayadas establecidas en esta villa una vez estudiado con detenimiento el precedente escrito, que se les priva a los mismos del derecho de fabricación, y como quiera que los que hasta la fecha se han dedicado a la referida industria y siempre que su conducta les haga acreedores a ello debieran tener el mismo derecho de fabricación que las Casas que actualmente se dedican a la fabricación de armas cortas y largas rayadas y que son las de UNCETA, STAR y GABILONDO, siempre y cuando se adapten a las mismas condiciones y puedan ofrecer las mismas garantías que el Estado exige a estas firmas.

Caso de que individualmente existieran alguna o algunas firmas que por si solas no pudieran llenar las condiciones que se les pudiera exigir, se podría solucionar este inconveniente agrupándolas a fin de formar una sociedad debidamente legalizada con la que ofrecerían las garantías que puedan ofrecer las indicadas casas Unceta, Star y Gabilondo. (...) Si bien en la actualidad los fabricantes

de armas cortas y largas rayadas se dedican a la fabricación de otros artículos, es más bien puramente circunstancial, pues por tener suspendida la fabricación de armas se han visto obligados para poder hacer frente a sus necesidades a modificar en la medida de sus posibilidades la fabricación de armas cortas y largas rayadas. Pero a fin de tener derechos el día de mañana para continuar la fabricación de armas, satisfacen las contribuciones, los impuestos y toda clase de patentes de invención y marcas registradas a sus respectivos nombres (1940ko abuztuaren 24an Eibarko Alkateak eta zenbait enpresak Seigarren Eskualde Militarreko Industria Zibilen Mobilizazio batzordeko buruari bidalitako gutuna. Eibarko Udal Artxiboa. Udal Fonda. Azpifondo historikoa (sign. B51.1)).

Aipaturiko hiru enpresa horiek, baimen hori zeukatela, Bigarren Mundu Gerran zehar alemaniar ejertzitoari pistolak saltzeko aukera izan zuten. Beste enpresek, aldiz, ezin izan ziotenez armen ekoizpenari jarraipenik eman, beste bide batzuk hartu zituzten. Adibidez, gure istorio honetako protagonista izan den hirugarren enpresa, Beistegui Hermanos, bizikletetan zentratu egin zen hortik aurrera. Pistola metrailadoreei dagokienez, ez zuten jarraipen handiegirik izan, eta, 50eko eta 60ko hamarkadetan saldu ziren arren, kopuruak txikiak izan ziren⁴¹.

7. Ondorioak

Artikulu honetan kontatutako istorioa historia ere bada, industriaren historia hain zuzen, pistola metrailadore hauetan laburbiltzen baita euskal armagintza XX. mendean izandakoa. Alde batetik, industriaren egitura ikusi ahal izan dugu, enpresa handi eta tailer txikien sare batez osaturiko distritu industrialia eta, nahiz eta ez dugun sakondu bere barne-funtzionamenduaren zenbait aztarna agerian gelditu dira. Bestetik, sektore honen hazkundearen oinarri izan zen imitazioaren estrategia ere agertu zaigu, baina kasu honetan berrikuntza puntu batzuekin horniturik. Markekin jokatzeko adituak zirela erakutsi digute gure armaginek; izan ere, tresna hori euren produktuen kalitate eskasagoa estaltzeko ere erabili egin zuten. Eta hori dena, inbertsio ahalmen txikiarekin eta, Toribio Echeverría-k esan bezala, *con un poco de castellano*. Beraz, ekonomikoki eta politikoki bizi izandako baldintzetara egokitze gai izan ziren, zenbait momentutan arrakastatsu suertatuz, nahiz eta gehienetan beraien auzokidea izan merkatu urrun horietako lehian zeukaten etsairik handiena.

Gaur egun, garai hartako armagintzaren izpi handirik sumatzerik ez dago. Baina Eibarrera edo Elgoibarrera joanez gero, etxebizitzaren artean erdi ezkutaturik dagoen tailer txikiren batean, eskopeta bat artelan bihurtzen ari den armagina topa genezake oraindik. Pistolarik egiten duen langilerik ez dugu topatuko ordea. Horretan aritu ziren azkeneko enpresek ateak itxiak dituzte. ASTRA-Unceta eta Bonifacio Echeverría-STAR desagertzen lehenengoak izan ziren joan den mendeko 90eko hamarkadan. FABRINOR, LLAMA-Gabilondo-ren ondorengoa, oraintsu arte sekulako arazoekin martxan izan dugun arren, likidazio-prozesuan barneraturik dago. Halere, armagintzak utzitako ondarea ez dugu armagintzan bertan bilatu behar, beste sektore batzuetan baizik. Makina-erreminta sektoreak edota euskal kooperatibismoak gaur egun erakusten duten arrakasta, neurri handi batean, horretan sustraitzen da eta.

41. Bonifacio Echeverría-k 1950 eta 1968 urteen bitartean 3.126 unitate baino ez zituen saldu (Antaris, 2001: 442).

Azkenik, istorio hau eta armagintzaren historia bera ere laburtzen duen bitxikeria batekin bukatu nahiko nuke. 30eko hamarkadan Unceta y Cía-k Txinan saldu behar zituen pistola metrailadoreen lote batzuk honela markatu zituen:

日国製

Txineraz idatzitako ideograma hauek hauxe esan nahi dute: Japonian egindakoa. Arma horiek, gerraren ondorioz, ez zitzaizkien inoiz Txinako bezeroei bidali eta errepublikako soldaduak hornitzeko erabili ziren (Antaris, 1988: 150). Hau da, Eibar, Ermua, Zaldibar eta Legazpiko tailerretan egindako piezekin, Gernikako enpresa batek osatutako eta Txinan, Japoniar jatorrikoak balira bezala, saldu behar ziren alemaniar arma baten kopiak erabili zituzten 1937ko gudariak. Hona hemen euskal armagintzaren historiaren alegoria.

Bibliografía

- Antaris L. M. (1988): *Astra Automatic Pistols*, Firac Publishing Co., Sterling, Colorado, USA.
- , (2001): *Star Firearms*, Firac Publishing Co., Davenport, Iowa, USA.
- ASTRA-Unceta y Compañía (1958): *ASTRA, Biografía de una empresa, 1908-1958*, Artes Gráficas Grijelmo, Bilbao.
- Calvó, J. L. eta Jiménez Sánchez-Malo, E. (1993): *1840-1940 Cien años de pistolas y revólveres españoles*, Asociación Española de Coleccionistas CID Armas antiguas y Recuerdos Históricos, Pontevedra.
- Calvó, J. L. (1997): *La Industria Armera Nacional 1830-1940. Fábricas, Privilegios, Patentes y Marcas*, Ego Ibarra Batzordea, Eibarko Udala, Eibar.
- Catalán, J. (1990): "Capitales modestos y dinamismo industrial: Orígenes del sistema de fábrica en los valles guipuzcoanos", *1841-1918 Pautas regionales de la industrialización española (siglos XIX y XX)*, Ariel, Barcelona.
- , (1995): *La economía española y la segunda guerra mundial*, Ariel, Barcelona.
- Echevarría, T. (1968): *Viaje por el País de los Recuerdos*, [berrargitalpenak: (1990) Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Donostia eta (2005) Ego Ibarra Batzordea, Eibarko Udala, Eibar].
- Eguren, J. M. (1923): *Breve Historial del Pleito Armero*, Eibar.
- Etxaniz, J. A. (2000): "Gernika-Lumo, 1913, Industrialización, movimiento obrero y conflicto social: la huelga de "Esperanza y Unceta", *Vasconia*, **30**, 141-162, Eusko Ikaskuntza, Donostia
- Ezell, E. C. (1983): *Handguns of the World*, Stackpole Book, Inc., Harrisburg, PA (USA).
- Fernández de Pinedo, E. (2001): "De la primera industrialización a la reconversión industrial: la economía vasca entre 1841 y 1990", *Historia Económica Regional de España, siglos XIX y XX*, Crítica, Barcelona.
- Gangarosa, G. (2001): *Spanish Handguns, The History of Spanish Pistols & Revólvers*, Stoeger Publications, Accokeek, MD (USA).
- Hogg, I. V. eta Weeks, J. (1978): *Pistols of the World*, Arms and Armour Press, Londres.
- Iza-Goñola, J. (2005): *ALFA S.A., Motor social y económico de la vida eibarresa*, Ego Ibarra Batzordea, Eibarko Udala, Eibar.
- Larrañaga, R. (1981): *Síntesis Histórica de la Armería Vasca*, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, Donostia.
- , (2001): *Armeros Vascos, Repaso Histórico- Raíces y Desarrollo*, Ego Ibarra Batzordea, Eibarko Udala, Eibar.

- Larrañaga, R. eta Gorrotxategi, S. (1990): *Eibar: 500 urte euskal armagintzan*, Eibarko Udala.
- Leitz, C. (1996): *Economic relations between Nazi Germany and Franco's Spain 1936-1945*, Clarendon Press, Oxford.
- Mortera Pérez, A. (1997): *Las pistolas españolas tipo "Mauser"*, Quirón Ediciones, Valladolid.
- Mujica, Gregorio de (1908): *Monografía histórica de la Villa de Eibar*, [3. argitalpena: (1984) Eibarko Udala, Eibar].
- Nelson, T. B. eta Musgrave, D. (1981): *The World's machine pistols and submachine guns (1964-1982)*, Chesa Ltd., Hong Kong.
- Núñez Calvo (2003): *El Armamento de la Guardia Civil (1844-2002)*, *Armas* [aldizkariaren ale berezia], **3**.
- Paul Arzac, J. L. (1976): *Evolución de la industria armera de Eibar*, Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Itsasketa Bazkundera, Donostia.
- Sáiz González, J. P. (1999): "Patentes, cambio técnico e industrialización en la España del siglo XIX", *Revista de Historia Económica*, XVII. urtea, **2**, Madrid.
- Urdangarin C.; Izaga, J. M. eta Lizarralde, K. (2001): *Antzinako Lanbideak*, Gipuzkoako Bazkundera, Donostia.

